# Xedapen Orokorrak

**INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**2851**

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 13koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, herritar guztiek euskal turismo-eskaintzarako aukera izatea sustatzeko neurriak ezartzen dituena.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko azaroaren 25eko Aginduak (2008ko abenduaren 18an argitaratu zen, 242. zenbakiko EHAAn), herritar guztiek euskal turismo-eskaintzarako aukera izatea sustatzeko neurriak ezartzen ditu.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren lankidetzarekin, Euskadiko Turismoko Irisgarritasun Eredua sortu zuen 2008an, Euskadiko turismo-eskaintzaren irisgarritasuna hobetzeko asmoarekin, herritarren dibertsitate funtzionala aintzat hartuta eta irisgarritasun-kontzeptua balio erantsiaren eta bikaintasunaren adierazgarri gisa aplikatuta, irisgarritasun-arloko hobekuntzak ia gizarte osoarentzat direlako mesedegarri, ingurune eta zerbitzuei kalitate, segurtasun eta erosotasun handiagoa dakarzkieten neurrian.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2008ko azaroaren 25ean emandako Agindu hori turismo-arloko erakunde eta enpresa jakin batzuei laguntzeko xedearekin sortu zen, hain zuzen ere, eredu horretan azaldutako jarraibideen arabera, ereduan ezarritako irisgarritasun-mailak bermatzeko beren zerbitzu, ekipamendu eta azpiegiturak egokitu behar zituzten erakunde eta enpresei laguntzeko asmoarekin.

2009an laguntza-programa nola kudeatu den aztertu ondoren, programa horretan zenbait aldaketa egiteko erabakia hartu dugu, programa hobetzeko eta erakunde interesdunak egin beharreko izapideak errazteko. Horretarako, prozeduran izapidetze elektronikoa txertatu dugu, sinadura digitalaren bidezkoa, eta gainera, erakunde interesdunak ez dio erakunde kualifikatu bati eskatu beharrik izango laguntzen xede diren jardunak egin ondoren establezimenduak lortutako irisgarritasun-maila ebaluatzeko diagnostikoa egiteko, administrazioak bere gain hartuko duelako zeregin hori.

Gainera, guztira 30.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez zuten jardunei bakarrik laguntzeko muga kenduko da; izan ere, 400 establezimendu baino gehiago ebaluatu ondoren, zera egiaztatu dugu, establezimendu horietako askok zenbateko horren gainetiko inbertsioa egin behar dutela eredura egokitzeko, eta,

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO**

**2851**

ORDEN de 13 de mayo de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se establecen medidas tendentes a promover el acceso universal de todas las personas a la oferta turística vasca.

La Orden de 25 de noviembre de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, publicada en el BOPV n.º 242, de 18 de diciembre de 2008, establece medidas tendentes a promover el acceso universal de todas las personas a la oferta turística vasca.

El Departamento de Industria, Comercio y Turismo, con la colaboración de la Fundación Vasca para la Excelencia - Euskalit, elaboró en el año 2008 el Modelo de Accesibilidad Turística de Euskadi con el objeto de mejorar la accesibilidad de la oferta turística de Euskadi, teniendo en cuenta la diversidad funcional de las personas y aplicando el concepto de accesibilidad como un factor de valor añadido y excelencia, dado que las mejoras en accesibilidad benefician a casi toda la sociedad, pues aportan mayor calidad, seguridad y confort a los entornos y servicios.

La citada Orden de 25 de noviembre de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, se elaboró con el fin de ayudar a las entidades y empresas turísticas que, siguiendo las pautas dictadas en el citado Modelo, tuvieran que adecuar sus servicios, equipamientos e infraestructuras para garantizar los niveles de accesibilidad en él establecidos.

El análisis de la gestión del programa de ayudas a lo largo del año 2009 lleva a introducir algunas modificaciones en el mismo, de cara a mejorar y facilitar a la entidad interesada su tramitación. Para ello, además de incorporar la tramitación electrónica con firma digital en el procedimiento, se le eximirá del compromiso de tener que solicitar a una entidad cualificada la realización del diagnóstico de evaluación del grado de accesibilidad del establecimiento obtenido tras la realización de las actuaciones objeto de ayuda, asumiendo la Administración dicha tarea.

De igual modo, se eliminará la limitación de apoyar actuaciones que no superen en su integridad un importe de 30.000 euros, al comprobar, tras evaluar más de 400 establecimientos, que para un importante número de ellos, el coste de adaptación al Modelo implica una inversión superior al citado importe

gainera, ekitaldi ekonomiko bat baino gehiago behar dutela horretarako. Turismoko Irisgarritasun Ereduarekiko konpromisoa adierazi ondoren establezimenduetan aldez aurretik ezarritako muga-kostuaren gainetiko egokitzapenak egin behar dituzten erakunde eta enpresentzako laguntza bermatuko du testu berriak, betiere horiek guztiak denboran planifikatu behar direla aintzat hartuta.

Lehen fase batean, turismo-ostatuaren, jatetxeen, turismo-bulegoen eta interpretazio-zentroen azpisektoreetara egokitu zen eredu hori. 2009. urtean, taberna eta kafetegien azpisektorera zabaldu da, eta, hortaz, azken horiek erakunde hartzailetzat hartuko dira hemendik aurrera.

Aurreko guztia ikusita, beharrezkoa da programa hau arautzeko agindu berria egitea, sartu beharreko aldaketak antolatzeko.

Horrenbestez, honako hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

1.– Agindu honen bitartez, herritar guztiek euskal turismo-eskaintzarako aukera izatea sustatzeko neurriak bultzatzeko laguntza-programaren esparru orokorra garatu nahi da, ekonomia sustatzeko zenbait laguntza-ildo ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Laguntza-programa horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako turismo-establezimenduen irisgarritasuna hobetzeko jardunak diruz lagunduko dira, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak diseinatutako Euskadiko Turismo Eskaintzaren Irisgarritasun Ereduarekin bat egiten badute.

Industria, Merkataritza eta Tursimo Sailaren Lurralde Ordezkaritzetan, edo www.euskadi.net/turismo web-orrian, honako hauei buruzko informazio deskribatzailea eskuratu ahalko da: Euskal Autonomia Erkidegoko turismoko irisgarritasun-eredua, eredura atxikitzeko prozedura, eta ereduan espezializatutako enpresen erreferentzia.

***2. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan dagokion laguntza-programarako propio ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira aurreko artikuluaren helburua betetzeko diren baliabide ekonomikoak. Aurrekontu-ekitaldian eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ez du diru-kopuru horien zenbatekoa edo hori eguneratzetik ateratzen dena gainditzerik izango, indarreko legerian aurreikusitako kredituak lotzeko edo aurrekontuak aldatze-

y que además, requiere de más de un ejercicio económico para ello. La nueva redacción garantizará el apoyo a las entidades y empresas que, comprometidas con el Modelo de Accesibilidad Turística, tengan que realizar adecuaciones en sus establecimientos, cuyo coste supera el límite antes impuesto, de una manera planificada en el tiempo.

Dicho modelo se adaptó en su primera fase a los subsectores de alojamiento turístico, restaurantes, oficinas de turismo y centros de interpretación. En el año 2009 se ha ampliado también al de bares y cafeterías, por lo que estos deberán contemplarse igualmente como entidades destinatarias.

A la vista de cuanto antecede, se hace necesaria una nueva Orden reguladora de este programa que articule las modificaciones que se pretenden introducir.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

1.– El objeto de la presente Orden es desarrollar el marco general del programa de ayudas para el impulso de las medidas tendentes a promover el acceso universal de todas las personas a la oferta turística vasca.

2.– De acuerdo con dicho programa de ayudas, se subvencionarán las actuaciones de mejora de la accesibilidad de los establecimientos de uso turístico ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, según se recoge en el Modelo de Accesibilidad Turística de Euskadi diseñado por el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

En las Delegaciones Territoriales del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, o en la Web:www.euskadi.net/turismo, podrá obtenerse información descriptiva del Programa de Accesibilidad Turística de Euskadi (descripción de las distintas variables y requisitos incluidos en los diversos tipos de diversidad funcional, de los procedimientos de adhesión y certificación, etc.).

***Artículo 2.***– Recursos Económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios consignados en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el correspondiente programa de ayudas. El volumen total de las ayudas a conceder dentro del ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia

ko erregimenari jarraiki, eta kasuan kasu, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programetarako erabilitako diru-kopurutik dirua soberan geratzen bada, betiere diru-laguntzei buruzko ebazpena eman aurretik. Merkataritza eta Turismo sailburuordearen ebazpen bitartez emango da horren berri.

2.– Programa hau indarrean dagoen bitartean, ekitaldi ekonomikoren batean laguntzak emateko esleitutako kreditua agortzen bada, arlo horretako eskumeneko Sailburuordetzak administrazio-ebazpena emango du jendeari horren berri emateko, baliabideak zein egunetan agortu diren adierazita. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta une horretatik aurrera aurkezturiko eskabiderik ez da onartuko.

Jada aurkezturiko eta izapide-fasean dauden eskabideak, esleituriko aurrekontu-hornidura agortu izanagatik erantzun ezin direnak, ukatu egingo dira arrazoi hori dela-eta, organo eskudunaren administrazio-ebazpenaren bidez.

Nolanahi ere, lehenagoko ekitaldietan aurkeztutako proiektuei buruzko laguntza-eskabide berriak, ekitaldi bateko aurrekontu-kredituei egotzi ahal izango zaizkie, betiere proiektu horiek Agindu honetan laguntzak jasotzeko ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte, eta gainera, abiapuntutzat edukitako ekitaldiko aurrekontu-kredituekin ase ez badira. Lehentasun-irizpideei dagokienez, ukatutako lehen eskabidearen datari jarraituko zaio.

3.– Diru-laguntzak eskatzeko espedienteen ebazpena modu ordenatuan egingo da, Agindu honetan eskatutako dokumentazio guztiarekin osatuta geratzen diren unearen arabera.

***3. artikulua.***– Entitate Onuradunak.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak honako hauek eskuratu ahal izango dituzte: enpresa txiki eta ertainek; horien elkarteek; Udalek, Mankomunitateek eta bestelako erakunde publikoek; eta irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakunde pribatuek, baldin eta eskabidearen unean EAEn kokatutako turismo-erabilerako establezimenduen titularrak badira, Euskadiko Turismoko Irisgarritasun Ereduaren araberako diagnostikoa badute, eta ondoren adierazitako tipologietako baten barruan koka daitekeen jarduera gauzatzen badute:

a) Hotelak, apopiletxeak eta turismo-apartamentuak.

b) Nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landa-etxeak.

c) Kanpinak.

o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente y, en su caso, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución de la Viceconsejera de Comercio y Turismo.

2.– Mientras se encuentre vigente el presente programa si en un ejercicio económico se agota el crédito consignado para la concesión de las ayudas, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia, por la Viceconsejería competente en esta materia se emitirá resolución administrativa en la que se señalará la fecha en que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco, no admitiéndose solicitud alguna que se presentase a partir de tal momento.

Además, las solicitudes que estuvieran ya presentadas y en tramitación, y que no pudieran ser atendidas por agotamiento de la dotación presupuestaria asignada, serán denegadas, por tal motivo, mediante resolución administrativa del órgano competente.

En tal caso, se podrán imputar a los créditos presupuestarios de un ejercicio las nuevas solicitudes de ayudas relativas a proyectos presentados en los ejercicios anteriores, siempre que los citados proyectos cumplan con los requisitos establecidos en la presente Orden para la obtención de ayudas y que, además, no hayan podido ser atendidos con los créditos presupuestarios del ejercicio en el que se iniciaron. A los efectos de criterios de prioridad se conservará la fecha de la primera solicitud denegada.

3.– La resolución de los expedientes de solicitud de las subvenciones se irá realizando ordenadamente en función del momento en que los mismos queden completados con toda la documentación exigida en la presente Orden.

***Artículo 3.***– Entidades Beneficiarias.

1.– Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente Orden de ayudas las pequeñas y medianas empresas, las agrupaciones de las mismas, los Ayuntamientos, Mancomunidades y otras Entidades Públicas, así como las Asociaciones o Entidades Privadas sin animo de lucro que, al tiempo de la solicitud, sean titulares de establecimientos de uso turístico ubicados en el País Vasco que hayan sido diagnosticados según el Modelo de Accesibilidad Turística de Euskadi y cuya actividad se encuadre en alguna de las tipologías siguientes:

a) Hoteles, pensiones y apartamentos turísticos.

b) Agroturismos y casas rurales.

c) Campings.

d) Jatetxeak, sagardotegiak, upeltegiak eta txakolindegiak.

e) Itourbask Sarera atxikitako turismo-bulegoak.

f) Interpretazio-zentroak.

g) Tabernak eta kafetegiak.

2.– Eskabidea egitean, a), b), c), d) eta g) idatzzatietan bildutako turismo-enpresek eta -establezimenduek erregistratuta egon beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresa eta Establezimenduen Erregistroan.

3.– Agindu honen ondorioetarako, enpresa txiki eta ertainak izango dira 250 pertsona baino gutxiago biltzen dituztenak eta 50 milioi euro gainditzen ez duen urteko negozio-bolumena dutenak edo 43 milioi euro gainditzen ez duen urteko balantze orokorra dutenak, eta ETE gisa kalifikatuak izateko nahitaezko baldintzak betetzen dituztenak, Itunaren 87. eta 88. artikuluak, I. eranskina (EEAO, L 214, 2008ko abuztukoa) aplikatuz laguntza kategoria jakin batzuk merkatu bateratuarekin bateragarri direla aitortzen duen Batzordearen 2008ko abuztuaren 6ko 800/2008 zenbakiko Erregelamenduan xedaturikoaren arabera, edo hura ordezten edo aldatzen duten xedapenen arabera.

4.– Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta dauden erakunde edo pertsona eskatzaileek ezin izango dute Agindu honetan arautzen laguntzetan parte hartu, ezta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekuaren eraginpean daudenek ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

5.– Agindu honek arautzen dituen laguntzak erakunde onuradunei eman eta, hala dagokionean, ordaindu aurretik, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura amaitzea.

***4. artikulua.***– Diru-laguntza jaso dezaketen jardunak.

1.– Agindu honetan bildutako laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen bitartez gauzatuko dira; pertsonek eduki ditzaketen edozein motatako dibertsitate funtzionalei (fisikoa, ikusmenezkoa, entzumenezkoa, adimenezkoa edo organikoa) erantzuteko. Agindu honen 3. artikuluan identifikatutako enpresen titulartasuna duten turismo-establezimenduetako zerbitzuak, ekipamenduak eta azpiegiturak egokitzeko ekintzak egitea bultzatuko dute laguntza horiek.

d) Restaurantes, sidrerías, bodegas y txakolindegis.

e) Oficinas de Turismo adheridas a la Red Itourbask.

f) Centros de Interpretación.

g) Bares y cafeterías.

2.– En el momento de la solicitud, las empresas y establecimientos turísticos recogidos en los apartados a), b), c), d) y g) deberán estar inscritos en el Registro de Empresas y Establecimientos Turísticos del País Vasco.

3.– A los efectos de esta Orden, se considerarán pequeñas y medianas empresas aquéllas que ocupan a menos de 250 personas y cuyo volumen de negocios anual no excede de 50 millones de euros o cuyo balance general anual no excede de 43 millones de euros, y que reúnan las condiciones necesarias para poder ser calificadas como PYME conforme a lo dispuesto en el Reglamento n.º 800/2008 de la Comisión, de 6 de agosto de 2008, por el que se declaran determinadas categorías de ayuda compatibles con el mercado común en aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado, anexo I, (DOUE, L 214, de agosto de 2008), o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

4.– No podrán concurrir, a las ayudas reguladas en la presente Orden, aquellas entidades o personas solicitantes que se encuentren sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o si se hallan incursas en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación por razón de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

5.– La concesión y, en su caso, el pago a las entidades beneficiarias de las ayudas reguladas en esta Orden quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

***Articulo 4.***– Actuaciones subvencionables.

1.– Las ayudas contempladas en la presente Orden se materializarán a través de subvenciones no reintegrables, y apoyarán la ejecución de las acciones de adaptación de los servicios, equipamientos e infraestructuras que, atendiendo a los diferentes tipos de diversidad funcional de las personas (física, visual, auditiva, intelectual y orgánica), deban realizar en los establecimientos turísticos de los que son titulares las entidades identificadas en el artículo 3 de la presente Orden.

2.– Ereduaren arabera establezimenduak duen irisgarritasun-mailaren egoera-diagnostikoaren ondoriozko hobekuntza-planean lehentasunezkotzat jo diren jardunek jasoko dute diru-laguntza. Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioak horretarako gaitutako erakunde batek bere gain hartuko du egoera-diagnostiko hori egitea.

Hortaz, lehentasunezko edozein mailatan bildutako jardunak gauza daitezen bultzatzeko, aurreko mailari edo mailei dagozkien jardunak eginda daudela hartuko da aintzat, edo bestela jardun haiek gauzatzeko epea amaitu aurretik eginda egongo direla. Azken kasu horretan, hobekuntza-plana egin duen erakundeak horren berri eman beharko du bere txostenean, eta aldeko iritzia eman beharko du horri dagokionez.

3.– Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren arabera, honako jardun hauek jaso dezakete laguntza:

a) Zerbitzuen, instalazioen eta azpiegituren egokitzapenek, gaitasun fisiko, adimenezko, zentzumenezko, edo organiko murriztuak dituzten pertsonei oztopoak kenduko dizkietenek, autonomia, segurtasuna eta erosotasuna eskaintzeko.

b) Laguntza teknikoak eskuratzeak.

c) Establezimenduaren hobekuntza-planean bildutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzek.

4.– Diru-laguntza jaso ahal izateko, egokitze- eta hobetze-jardunak hasi beharko dira deialdi-ebazpen hau indarrean hasten den ekitaldian, eta ondorengo ekitaldiko ekainaren 30a baino lehen gauzatu beharko dira.

5.– Aurrekoa gorabehera, erakunde onuradunak sortu ez dituen eta behar bezala egiaztatutako arrazoiengatik, deialdi-ebazpena argitaratzen den ekitaldiaren ondorengo ekitaldiko ekainaren 30etik aurrera egindako jardunak ere onargarriak izango dira, dagokion luzapenaren bitartez. Luzapen horrek gehienez sei hilabete izango ditu, betiere aurrekontu bidez egiaztatzen bada jardunak aurreko ekitaldietan konprometitu direla.

Epearen luzapena eskatu eta emateko, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 49.3 artikuluan ezarritakoa hartu beharko da aintzat (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu du Lege hori), dagokion epea amaitu aurretik, eta epeak luzatu edo ukatzeari buruzko erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

6.– Nolanahi ere, gastuaren balio «garbia» hartuko da gastu edo inbertsio onargarritzat, hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kendu ondoren fakturatutako zenbatekoa.

2.– Se subvencionarán las actuaciones identificadas como prioritarias en el Plan de Mejora resultante del diagnóstico de situación del grado de accesibilidad del establecimiento respecto del Modelo, realizado por una entidad acreditada para ello por Euskalit, Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad.

Por tanto, para apoyar la ejecución de las actuaciones contempladas en cualquier de los niveles de prioridad, se entenderá que las actuaciones relativas al nivel o niveles inmediatamente anteriores están realizadas o que, en su defecto, estarán realizadas antes de la finalización del plazo de ejecución de aquellas. En este último caso, la entidad que haya realizado el Plan de Mejora deberá recoger en su informe dicho extremo y emitir una opinión favorable al respecto.

3.– Conforme a lo dispuesto en el apartado anterior, serán susceptible de ayuda las actuaciones consistentes en:

a) Las adecuaciones de servicios, instalaciones e infraestructuras tendentes a eliminar los obstáculos a las personas que tengan reducidas sus capacidades físicas, intelectuales, sensoriales u orgánicas a fin de proporcionales autonomía, seguridad y confort.

b) Adquisición de ayudas técnicas.

c) Acciones de sensibilización y formación identificadas en el plan de mejora del establecimiento.

4.– Las actuaciones de adaptación y mejora para ser subvencionables deberán comprometerse e iniciarse en el ejercicio correspondiente al de entrada en vigor de la correspondiente resolución de convocatoria, teniendo como plazo último de ejecución el 30 de junio del ejercicio siguiente.

5.– No obstante lo que precede, por motivos debidamente justificados y no imputables a la entidad beneficiaria, serán admisibles las actuaciones realizadas en fecha posterior a 30 de junio del ejercicio siguiente al de la publicación de la resolución de convocatoria, previa concesión de la correspondiente prórroga que no excederá de un período de seis meses, siempre que en este último caso se justifique mediante presupuesto que las actuaciones están comprometidas en ejercicios anteriores.

La petición y concesión de la ampliación solicitada deberán producirse conforme a lo dispuesto en el artículo 49.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero, antes del vencimiento del plazo de que se trate, no siendo susceptibles de recursos los acuerdos sobre ampliación o denegación de plazos.

6.– En todo caso, se computará como gasto o inversión admisible su valor «neto», entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

***5. artikulua.***– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzetarako, diru-laguntzen ehunekoak ezin izango du aurrekontu garbi onartuaren % 30 gainditu, ezta 9.000 euroko gehienezko kopurua ere.

2.– Ehuneko horri % 5 gehitu ahal izango zaio, baldin eta onuradunak egiaztatzen badu, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Sailak turismo-sektorerako bultzatzen dituen kalitate-ziurtagirietako bat duela irisgarritasuna hobetzeko planaren xede den establezimenduak: ISO 9001:2000, Espainiako Turismoaren Kalitaterako Institutuak emandako Turismoko Kalitate Markak, edota Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioak administratutako EFQM errekonozimenduak; kasu horretan, laguntzaren gehienezko kopurua 10.500 euro izango litzateke.

***6. artikulua.***– Beste laguntza batzuekiko aldiberekotasuna.

1.– Agindu honen babesean diruz lagunduko diren jardunak bateragarri izango dira Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak xede bererako emango dituen jardun guztiekin.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoak –estatuko zein nazioarteko beste administrazio publikoen edo entitate pribatu edo publikoen laguntzekin edo diru-laguntzekin batera– ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, eta kasu horretan Agindu honetan emandako laguntza gutxituko da, gehiegizkoari dagokion kopurua kenduta.

3.– Agindu honetan ezarritako laguntzek 2006ko abenduaren 15eko Batzordearen 1998/2006 zenbakiko Erregelamenduan (EE) ezarritako minimis arauak errespetatuko dituzte. Hain zuzen ere, Erregelamendu hori EE Itunaren 87. eta 88. artikuluak minimis laguntzei edo Europar Batasunaren esparruan ildo beretik emandako bestelako jarraibide edo xedapenei aplikatzeari dagokio.

Europar Batasunak ezarritakoaren arabera minimis erregelamenduaren arabera enpresa batek gehienez 200.000 euro jaso ditzake 3 zerga-ekitalditan, laguntza eskatu den ekitaldia erreferentziatzat hartuta.

Muga hori gaindituz gero, Programa honi jarraiki emandako laguntzaren zenbatekoa gutxitu egingo da, soberako kopuruaren arabera.

***7. artikulua.***– Deialdia.

Agindu honek araututako laguntzak urtean behin egingo diren deialdi publikoen bidez iragarriko dira eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren eta berdintasunaren printzipioei jarraituz emango dira. Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazpen bidez egingo da deialdia, turismo-azpisektore bakoi-

***Artículo 5.***– Cuantía de las ayudas.

1.– El porcentaje de subvención para las ayudas previstas en la presente Orden no podrá superar el 30% del presupuesto neto admitido, ni el importe máximo de 9.000 euros.

2.– Este porcentaje podrá incrementarse en un 5%, si la entidad beneficiaria acredita, a fecha de la finalización del plazo de presentación de solicitudes, que el establecimiento objeto del plan de mejora de la accesibilidad está en posesión de alguno de los certificados de calidad apoyados por el Departamento para el sector turístico: ISO 9001:2000, las Marcas de Calidad Turísticas concedidas por el Instituto para la Calidad Turística Española; o bien, los reconocimientos EFQM administrados por la Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad, Euskalit, en cuyo caso, el importe máximo de la ayuda ascendería a 10.500 euros.

***Artículo 6.***– Concurrencia con otras ayudas.

1.– Las actuaciones que se subvencionen al amparo de la presente Orden serán compatibles con cualquier otra otorgada, para el mismo fin, por el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

2.– El importe de la subvención no podrá, en concurrencia con ayudas o subvenciones de otras administraciones públicas o entes privados o públicos, nacionales o internacionales, superar el coste de la actividad subvencionada, en tal caso se minorará en la cantidad correspondiente al exceso, la ayuda concedida en virtud de la presente Orden.

3.– Las ayudas establecidas en la presente Orden, respetarán las reglas de Mínimis establecidas en el Reglamento (CE) n.º 1998/2006, de la Comisión de 15 de diciembre de 2006, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas de Mínimis u otras directrices o disposiciones emanadas al efecto en el marco de la Unión Europea.

Según lo establecido por la Unión Europea, el conjunto total de las ayudas que con arreglo al reglamento de Mínimis puede recibir una misma empresa no puede ser superior a 200.000 euros durante un periodo de 3 ejercicios fiscales, tomando como referencia aquel en el que se solicita la ayuda.

En caso de superarse dicho límite, la ayuda concedida en virtud de este Programa se minorará en la cantidad correspondiente al exceso.

***Artículo 7.***– Convocatoria.

Las ayudas reguladas en la presente Orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia, objetividad e igualdad. La convocatoria se realizará por resolución de la Viceconsejera de Comercio y Turismo, en función del modelo de accesibilidad de cada

tzaren irigarritasun-ereduaren arabera, eta, bertan, ekitaldi honetako diru-laguntzak emateko bideratutako aurrekontu-kontsignazioaren zenbatekoa zehaztuko da, baita honako hauek ere: agindu honetan ezarritako zenbatekoak kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera eguneratzeko aukera eta eskabideak aurkezteko epea eta tokiak.

***8. artikulua.***– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Agindu honetan bildutako eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izango dira, administrazio-prozeduretan bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuaren arabera (22. EHAA, 2008ko urtarrilaren 31koa) eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuari jarraiki (2008ko maiatzaren 30eko EHAA, 102. zenbakia).

Bitarteko elektronikoen bidezko izapidetzea hautatzen bada, eskabide-eredua eskuratzea, Turismo Administrazioan aurkeztea, eta, hala badagokio, espedientean sartzea, www.euskadi.net web-orrian egingo dira, betiere Merkataritza eta Turismoko sailburuordeak ebazpen bidez laguntzen deialdia egin ondoren.

Erakunde eskatzailea ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsonaren sinadura elektroniko baimendua jasoko da eskabidean, 232/2007 Dekretu horren 3. artikuluko 3. ikatz-zatiarekin bat etorriz, baita eskabidearekin batera joan behar duen dokumentazio guztia, pdf formatuan, eta turismo-arloko administrazioak eskatzaileari eska diezazkiokeen gainerako dokumentuak ere.

Aurreko aukeraren alternatiba gisa, Turismo Zuzendaritzan ere aurkez daiteke eskabidea; bide hori aukeratuz gero, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren dagokion Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko da, zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako tokietan.

2.– Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Bulegoetan eskabide- eta datu-orri eredu bat eskainiko da, edo bestela www.euskadi.net/turismo web-orrian eskura daiteke eredu hori, behin laguntzen deialdia egin ondoren Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazpenaren bitartez. Ebazpena emateko sei hilabeteko epea emango da, dagokion deialdi-ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko ahalmena duenak sinatuko du eskabidea.

subsector turístico, y determinará el importe de la consignación presupuestaria destinada para el otorgamiento de las subvenciones en ese ejercicio, así como la posible actualización de las cuantías establecidas en la presente Orden conforme al índice de precios al consumo (IPC), el plazo para la presentación de solicitudes y los lugares para su presentación.

***Artículo 8.***– Solicitudes y documentación.

1.– La realización de las solicitudes, requerimientos, notificaciones y demás gestiones implicadas en está Orden se podrá efectuar por medios electrónicos, de conformidad con el Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos (BOPV n.º 22, de 31 de enero de 2008) y el Decreto 72/2008, de 29 de abril, de creación, organización y funcionamiento de los registros de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos (BOPV n.º 102, de 30 de mayo de 2008).

En el caso de que la tramitación escogida sea por medios electrónicos, el acceso al modelo de solicitud, su presentación a la Administración Turística, y en su caso el acceso al expediente, se realizará en la Web: www.euskadi.net, una vez efectuada la convocatoria de las ayudas mediante resolución de la Viceconsejera de Comercio y Turismo.

La solicitud incorporará la firma electrónica reconocida de la persona que posea capacidad legal para representar a la entidad solicitante, de conformidad con el apartado 3 del artículo 3 del mencionado Decreto 232/2007; así como toda la documentación, en formato pdf, que haya de acompañarse a la solicitud y el resto de la documentación que pueda serle requerida a la persona solicitante por la administración turística.

Alternativamente a la opción anterior, también se podrán formular la solicitud por medio de instancia dirigida a la Dirección de Turismo, y se presentará en la correspondiente Delegación Territorial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Un modelo de solicitud y de formularios será facilitado por las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, o podrá obtenerse en la Web:www.euskadi.net/turismo, una vez efectuada la convocatoria de las ayudas mediante resolución de la Viceconsejera de Comercio y Turismo. El plazo para la resolución de las mismas será de seis meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la correspondiente resolución de convocatoria. La instancia será firmada por la persona que posea capacidad legal para representar a la entidad solicitante.

3.– Erakunde eskatzaileak eskabidea bete beharko du, honako hauek barne: egin beharreko proiektuaren memoria deskribatzailea (gauzatze-epeak, egin beharreko ekintzak, beharrezkoak diren planoak, eta abar zehaztuta), eta zinpeko aitorpena, eskabide horretan bildu diren eta erakunde eskatzailearen izaeraren arabera aplikagarri zaizkien alderdien egiazkotasuna frogatzeko. Honako hauek dira aplikatu beharreko alderdi horiek:

a) Eskabidearen ekitaldiaren aurreko ekitaldiko abenduaren 31n zeuden langileen kopurua, hilabete horretako TC2 inprimakiaren arabera, sexuaren arabera bereizita.

b) Eskabidea egin aurreko ekitaldiko abenduaren 31n izandako fakturazioaren kopurua.

c) Eskabidearen ekitaldiaren aurreko ekitaldiko abenduaren 31n egindako urteko balantze orokorraren kopurua.

d) ETE ez den enpresa batek edo zenbait ETEk aldi berean, zuzenean edo zeharka, erakunde eskatzailearen kapitalaren % 25etik gorako partaidetza ez dutela egiaztatzen duen dokumentua.

e) Inbertsio-proiektu berbera gauzatzeko beste erakunde publiko edo pribatuk emandako laguntzak.

f) Azken hiru ekitaldietan enpresak jasotako laguntzak, laguntza eskatu den urtea azken urtearen erreferentziatzat hartuta.

g) Erantzukizun-aitorpena, erakunde eskatzailea zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela adierazten duena, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

h) Enpresa honako kalitate-ziurtagiri hauetako batzuen jabe izatea: ISO 9001:2000, Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuaren Turismoko Kalitate Marka, eta/edo EFQM errekonozimenduak.

4.– Eskabideak oinarrizko honako dokumentu hauekin batera aurkeztu beharko dira:

a) Hala badagokio, eskatzailearen ordezkaritza-ahalmenaren fotokopia, salbu eta ahalmen hori Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren eskura badago eta ahalordedun-aldaketarik izan ez bada.

b) Eskatzailearen NANaren fotokopia.

c) Erakunde eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.

3.– La entidad solicitante deberá cumplimentar la solicitud que deberá contener memoria descriptiva del proyecto a realizar (que incluya plazos de ejecución, especificando las acciones a realizar, planos si fueran necesarios, etc.) y una declaración jurada respecto a la veracidad de los aspectos que aparecen recogidos en dicha solicitud y que, en función de la naturaleza de la entidad solicitante les sea de aplicación, y que son los siguientes:

a) El numero de personas en plantilla existente a 31 de diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud, según T2 de este mes, desagregado por sexo.

b) La cifra de facturación a 31 de diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud.

c) La cifra de su balance general anual a 31 de diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud.

